Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2254

EBAZPENA, 2011ko apirilaren 1ekoa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, patenteak eskatzeko laguntzetarako deialdia egiten duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko azaroaren 26ko Aginduari jarraituz (abenduaren 17ko EHAA, 242. zk.), patenteen deialdiari buruzko laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzeko dena.

Deialdi-aginduaren 10.1 artikuluaren arabera, Ebaluazio Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari helaraziko dio proposamena eta berak esleituko ditu eskabide bakoitzeko patentearen idazketako kostuei dagozkien zenbatekoak, deialdiaren 4. artikuluan ezarritako mugen barnean; hori ebazpen indibidual eta arrazoituaren bidez gauzatuko da, zeina interesdunei banan-banan jakinaraziko baitzaie. Esleipena eskabidea jasotzen den hurrenkeraren arabera egingo da, horretarako bideratua dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte, eta horren berri emango da EHAAn. Diru-laguntzen esleipen- eta likidazio-prozesua amaitzen denean, erakunde onuradunen zerrenda EHAAn argitaratuko da, denek ikus dezaten.

Deialdi-eskabide bakoitza ebatzi eta dagokion likidazioa egin denez, emandako diru-laguntzak argitaratu behar dira, guztiek horren berri izan dezaten; horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Patenteak eskatzeko laguntzetarako deialdia egiten duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko azaroaren 26ko Aginduari jarraituz (abenduaren 17ko EHAA, 242. zk.), patenteak eskatzeko emandako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzea (1. eranskinean).

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 1a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
PEDRO LUIS ARIAS ERGUETA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2254

RESOLUCIÓN de 1 de abril de 2011, del Viceconsejero de Universidades e Investigación por la que se hace pública la relación de beneficiarios de las ayudas relativas a la convocatoria de patentes de conformidad con la Orden de 26 de noviembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas para la solicitud de Patentes (BOPV n.º 242, de 17 de diciembre).

El artículo 10.1 de la Orden de convocatoria manifiesta que la Comisión de evaluación elevará la propuesta al Viceconsejero de Universidades e Investigación, quien realizará la adjudicación de la cantidad correspondiente a los costes de redacción de la patente de cada una de las solicitudes con los límites establecidos en el artículo 4 de la convocatoria a través de resolución individual y motivada que será notificada individualmente a los interesados. La adjudicación se hará por orden de la fecha de recepción de la solicitud hasta el agotamiento del crédito presupuestario disponible, circunstancia ésta que será notificada en el BOPV. Cuando se termine el proceso de adjudicación y liquidación de las subvenciones se publicará en el BOPV la relación de organismos beneficiados para general conocimiento.

Habiéndose realizado la resolución individual de cada una de las solicitudes de la convocatoria, así como sus correspondientes liquidaciones, procede llevar a cabo la publicación de las ayudas concedidas a efectos de general conocimiento, por lo que

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar la relación de beneficiarios de las ayudas concedidas para solicitar patentes de conformidad con la Orden de 26 de noviembre de 2009 de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación por la que se convocan ayudas para la solicitud de Patentes (BOPV n.º 242, de 17 de diciembre), relacionados en el anexo 1.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de abril de 2011.

El Viceconsejero de Universidades e Investigación,
PEDRO LUIS ARIAS ERGUETA.

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN ZERRENDA
RELACIÓN DE AYUDAS CONCEDIDAS

Kodea *Código*	Ikertzaile nagusia *Investigador principal*	Onuraduna *Beneficiario*	Patentearen erregistro zk. *N.º de registro de la patente*	Finantzaketa/*Financiación*
Pat10-01	Araquistain Marquina, Ivan	Fundación Tekniker	EP10382108.8	3.750
Pat10-03	Nestor Arana Arexolaleiba	Goi Eskola Politeknikoa, S. Coop.	P201130082	1.275
Pat10-04	BouAli Saidi, Mohammed Mounir	Goi Eskola Politeknikoa, S. Coop.	P201130055	1.275
Pat10-05	BouAli Saidi, Mohammed Mounir	Goi Eskola Politeknikoa, S. Coop.	P201031973	3.130